

56.
zk.

1997KO
AUZTUA

GEU ELKARTEAREN ABESAREKIN

garfez

gasteizko euskaldunen aldizkaria

1997ko
jaiak



JOSE LUIS ISASI • ERNRIQUE ORIBE • IÑAKI LANDA

"Gasteiztar eta arabar
guztiok gara Zeledon"

Kultura eta rock and rolla

Ama-kultura, alaba-musika, iloba-Rock and Rolla. Musika kulturaren arlo bat bada, eta Rock and Rolla XX. mendeko musika motatzat jotzen badugu, propietate elkarkorraren bidez, Rock and Rolla kulturarekin pareka dezakegu. Ala ez? Askoren ustez, ez. Kulturaren etxean logelen nagusiak, oheen ugazabak, konformismoaren maindire artean loak hartu dituenak. Guk aukeratzin ditugu gure ordezkariak, guk erosten dugu telebistagailua, gu joaten gara zinemara, guk badakigu museoren bat badugula. Dugula? Dagoela, barkatu! Euren guztiek, berriz, kultura banatzen digute. Ordezkariak, hitzak berak argi eta garbi azaltzen duenez, gure ordezkariak kitzen dute bizitzan hain garrantzi handiko diren arazo horietan, geu gai ez garenetan, hain zuzen ere (zelako irakaskuntza nahi dugun, nori eman diru laguntzak, zer bultzatu behar den eta zer ez...). Eta gu pozik, bestela, zertarako hautatu ote ditugu ordezkari jakintsuak?

Eta telebista? Hau bai kulturaren iturria, XX. mendeko artearen adibiderik garbiena: potean sartuta, inbidiarik ez izateko guztiontzat berdina. Ederto! Eta zinea? Maiz bilakatzen da, telebista ez ikustearren, ordaindu beharreko extra. Eta museoak? Zer dira? Non daude? A, bai!, giltzazaina duten etxe zahar horiek.

Eta Rock and Rolla? Lekurik al du telebistaren programazioan? Zineman akaso? Museoetan gordeta al dago? Ezetz? Orduan ez da artea izango, ezta, jakina!, kulturaren arlo bat ere. Rock and Rolla ez da inoiz gobernariaren odoretan ibili. Musika-industriak mugimendu edo talde bat negozio bilakatu bezain pronto, ipurdian astindu dion beste bat agertu da. Rock and Rollaren alde biziena kaleetan zehar dabil oraindik, bihurria, alaia, burugogorra, sistema zirikatuz, bere menpetik urrun.

Eta, jakina!, sistemak ez du maite ondo helduta ez duena. Rockari ez diote inoiz kulturaren labela onartuko. Baina, guri bost axola! Nork maite ote du sistemaren kultura aspergarria? Nork du gogoko diruaren kultura?

Txabi Arnal Gil

Gasteizko JAIAK

Berriz ere, iritsi zaigu uda. Urtebete zaharragoak! Baina, bestalde, urtebete aberatsagoak! Irakurleak pentsa dezake, nola aberatsagoak! Erantzuna oso erraza da: Nork ez du kultura gehiago? Nork ez du esperientzia gehitu edota nola edo hala bere jakinduria handitu? Beste batzuek ordea, gutxienez, diru poltsa ere lodituko zuten. Dena den, berriz ere hemen gaude Gasteizko Jai Nagusiak ospatzeko prest. Hego Euskalerriko lau hiri-buruetan udan ospatzen dira Jai Nagusiak. Iruñean lehendabizi Fermin Deunaren festak uztailaren lehenengo egunetan, Gasteizen abuztuaren hasieran Andre Mari Zuriaren zaindaritzapean, segidan Donostiako Aste Nagusia eta Bilbon azkenik; hauek biak abuztuaren bihotzean.

Bestalde, zer utik datozkigu gure Jai Nagusien mezuak, Andre Maria Zuria, Fermin Deuna, Koruko Ama Birjina edo Begoñako Ama; badirudi jaiak jai izateko erlijioa

bitarteko nahitanahiezkua izan behar dugula, azken urteotan gure

Eliz Amarenganako izan dugun lotura urtero Jai Nagusietan gogoraraziz.

Jaien bezperetan ezin dezakegu ahaztu, urte osoan lan egiteko zorian egon garenok, jaiak ondo pasatzeko direla, atsedean hartzeko, gure

familiarekin, beste herrikide eta adiskideekin eta hurbiltzen zaizkigun kanpotarrekin gure adiskidetasuna eta elkartasuna berrizteko.

Baina, ez litzateke zintzoa izango, nire artikuluko txiki honetan gogoratuko ez banitu hainbat eta hainbat gasteiztar, gaixo nahiz kanpoan nahiz beste edozein oztoporengatik, gure Jai Nagusietan parte hartu ezin dutenak. Bihoa

beraien-tzat be-sarkada h a n d i h a n d i bat.

Gasteizko Jai on eta zori-ontsuak izan, gure

Zeledonon gidaritzapean, gasteiztarrok eta gasteiztar ez zareten guztiok.



Alberto Ansola Maiztegi

1997ko
abuztua

2

geu idazle, txabi arnal gil
kolaborazioa, alberto ansola

4

Kalea mintzo, Jaiak

6

Erraldoiak eta
burrhandiak:
parranderorik handienak

9

Aihotz Plaza: euskal
kulturan adierazgarri

11-18

EGITARAUA:
kolaborazioa, alberto saez
de la fuente: gasteizko
jaiak eta euskara

19

ZELEDON: 40 urteko
historia

25

TXOSNAK
Gasteizko Jaietan, bada
alternatiba



ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAGA,

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

WIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU,

KOLABORATZAILEAK:

TXIFI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, IÑAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

kalea
mintzo

geu gasteiz jaietan • geu

jaietan •



JAIK 97

U darekin batera datoz jaietako ospakizun gehienak eta Euskal Herriko bazter guztietan nagusitu egiten da jaigiroa. Herri bakoitzean ospatzen diren jaiak badute ohitura eta topiko bihurtu den zenbait ezaugarri. Gasteizko jaiak abuztuko lehen astean hasten dira. Bertako ezaugarri bereizgarrienak Zeledon eta blusa-taldeak dira. Hona hemen Gasteizko jaiari buruz kalean jaso ditugun iritziak.



sonia Mtz de Soria
ADMINISTRATZIO LAGUNTZAILEA



victor iribate
LANGA BEA

1.- Oro har ondo daude, nik uste behintzat. Ondoan ditugun hiriburu eta jaien artean hoberenak dira.

2.- Jaiak orduoro bizi behar ditugula uste dut. Gaez bakarrik, ez.

1.- Ondo deritzet Gasteizko jaiari, gehiegi edaten den arren.

2.- Egia esan, luzaro nabil Gasteizko jaietara etorri gabe eta ezin esan zer dago faltan eta zer soberan.

ZER DERITZEU JAIARI?

ZER DAGO FALTAN ETA ZER SOBERAN?

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz


MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrantea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53

geu gasteiz
gasteizko euskal kulturaren aldiak

Jaiak



Kresen Landa
ETXEKOANDREA

1.- Beste hiri batzuetan gertatzen dena gertatzen da, nik uste. Onak dira, baina jaiak hobetzeko zer edo zer egin daitekelakoan nago.

2.- Faltan, faltan... ez dakit. Baina, adibidez, blusek zezenetara egiten duten ibilaldia, jadanik ez da orain dela 20 urtekoaren modukoa. Eta beste hainbat gauzekin, antzera....



Iñaki Mendioroz
KALITATE KONTROLATZAILEA

1.- Denetatik dago. Batetik, zezenketak egon badaude oraindik. Eta denok badakigu basakeria hutsak direla, baina dena ondo egitea ere...

2.- Jai alternatiboa indartu behar da, beste jaigune bat delako.eta musika kontzertuek denontzat izan behar dutelako.



Begoña Diva
ADMINISTRATZIO LAGUNTZAILEA

1.- Ia ia ez ditut ezagutzen, oporretara joaten naizelako. Baina jendea gustura dabilela uste dut

2.- Soberan, ez dago ezer, nire ustetan. Eta, faltan... ba... umeentzat, ume txikientzat batez ere, zerbait... nagusiagoek jolas guztiak bereganatzen baitituzte beti eta txikiak alde batera geratzen dira gehienetan.



Rafael Garcia
IKASLEA

1.- Gasteiztarra naizenez, hoberenak direla esan behar dut. Baina, egia esan, denetatik dugu eta kriston "martxa" ikusten da.

2.- Soberan, dudarik gabe, harrapatzen ditugun "atxurrak". Eta, faltan, kaleko giroa indartu beharra.



Virginia Romero
ADMINISTRATZIO LAGUNTZAILEA

1.- Ezin hobeak. Eta batez ere, gero eta kanpoko jende gehiago datorrelako.

2.- Blusek "Día del Guarro" esaten diotena kenduko nuke lehenbailehen. Eta, falta duguna, berriz, gutxi da, ba... era guztietako ekitaldiak ditugulako.



Jorge Esteban
LANGAIA

1.- Aurten, lehendabiziko urtea izango da niretzat. Nahiz eta jendeak denetatik kontatu didan, ez nago ezer esateko moduan.

2.- Jaiet buruz entzun izan dudaren arabera, istiluak kenduko nituzke eta fanfarre gehiago ipiniko nituzke kaleko giroa berotzeko.



Ernesto Maria
DEKORATZAILEA

1.- Iaz ezagutu nituen festak, ba... urtero Gasteiztik at egoten naizelako jaietan eta, benetan, beti azaldu izan dizkidaten bezalakoak dira Gasteizkoak.

2.- Soberan dagoena "jotak" dira. Etxe azpian jotzen dizkidatelako eta lo kuluxkarik ere ezin dut hartu. Eta faltan... ez dakit, une honetan ez dut ezer goioan.



Maria Diaz de Artea
IKASLEA

1.- Oso onak direla, baina hobe daitezke, gauza guztiekin gertatzen den bezala.

2.- Txoko herritarrak falta genituen, baina azken urteotan, Matxete Plazan esaterako, ekitaldiak indartu direla ikusi dut. Eta soberan, aldiz, gauza ofizialeki eskaintzen dizkigutela esango nuke.

TESTU LIBURUAK
eskatu zure testu liburuak
eta ez estutu gero

Koldo Mitxelena • deskontu bereziak

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2. errikoia

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Erraldoiak eta buruhandiak: parranderorik handienak

Askok eta askok kontrakoa uste arren, erraldoiak eta buruhandiak aspaldikoak dira. Adibide gisa, XVII. mendeko agirietan haien berri ematen da lehendabizikoz. Orduan, elizkizunak ziren nagusi, eta horietan egoten ziren erraldoiak eta buruhandiak. Baina, 1780an Carlos IIIak erabat zabalduz zeuden pertsonaia haiek debekatu zituen, eta horrela Gasteizko kaleetatik desagertu ziren. 136 urte berandvago, herri ekimenari esker, berriz agertu ziren kaleotan. Hona hemen, hori guztia eta ondorengoa laburbildurik.

CARLOS III.aren debekua bertan behera geratzean, Gasteizko udalak Burgosekoari eskatu zizkion euren erraldoiak, jaietan kaletik ibiltzeko. Halere, erantzuna ezetz borobila izan zen, eta orduko egunkari batek zioenez,

“bost axola zaigu. Guk ere ez diogu ezer emango”.

Kontuak kontu, XIX. mendearen bukaeran ez zegoen erraldorik Gasteizen, baina azkenik, Iruñeako udalari esker, 1.900. urtean erraldoiak, kilikiak

eta buruhandiak berriro azaldu ziren Andre Maria Zuriko festetan. Dena den, mesede asko eskatu behar izan zituen Gasteizko udalak, 1917. urtera bitartean, ez baitzen erraldoi gasteiztarrik.



K2

**KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO**

C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
48000 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrearnean iharduteko mahaiaik • Ping-pong mahaiaik

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

Aurten 80 urte betetzen dituzte erraldoiak eta buruhandiak. Asko aldatu da Gasteiz urte horietan, ez ordea beren xedea: Jaietako ekitaldi nagusietan parte hartzea, eta haurrekin batera jolastea. Gainera, kilo batzuk galdu ondoren, inoiz baino arinago eta alaiago ditugu, eta ez bakarrik haiek, baita Udal Folklore Akademiakoak ere, haiek baitira eramaleak.

KARTA JOKUKO ERREGEAK

Karta jokuko erregeak Gasteizko erraldioen ikur bihurtu dira azken urteotan. Halere, egun protagonistak ditugun horiek kalera irten gabe izan ziren hainbat urtetan. Zaharrak berri beharrean, erraldoi berriak egitea erabaki zuen Heraclio Fournier enpresak 1991an. Erraldoi zahar haiek ederrak ziren, baina pisu handikoak genituen, batzuek, 50 kilo pisatzen baitzuten. Horren ondorioz, ia bost metroko erraldoiek kalea utzi behar izan zuten, 19 urtez Gasteizko jaietan murgilduta egon ondoren. Egungoak bestelakoak dira, barruko materialeak modernoak eta arina da, eta ez harri-kartoi zaharra eta astuna.

GARGANTUA

Gargantua erraldoia 1923ko urtarrilaren 6an jaio zen. Orditik, istorioak dioenez, ume gasteiztarrek jaten ibili da atsedeen gabe. Grand-goussier eta Gargamelle zituen aita-ama. Antza, gura-

soek semeari jana emateko, 100 bat behi behar zituzten egunero, eta aberatsak genituen arren, txirotu egin ziren. Tripontzi hutsa zen Gargantua.

Erabat gasteiztartua dagoen pertsona bilbotar batek egin zuen, Serafin Basterrak alegia. Lanaren truke orduko 4.915 pezeta jaso zituen artista bilbotarrak. Berritze lanak egin behar izan badizkiote ere, erraldoi hura egungoa bera da. Mahaiaren ondoan eserita, eta ematen ez duen arren, zortzi metro ditu altueran, baina ez hori bakarrik, 2 metroko besoak, hiru metroko hankak, 506 kilo... mutil ederra, benetan. Urte askotarako, Gargantua jauna!

 Ismael Diaz de Mendibil



EGUNGO ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN PASADIZOAK

1916 Erraldioen eta buruhandien beharra eztabaida gaia da hiriko egunkarietan eta lagunen arteko solasaldietan.

1917 Gasteiztar guztien dirulaguntzari esker Udalak erraldoiak eta buruhandiak erostea erabakitzen du. Isaac Diez de Olanok zer nolako erraldoiak izango ziren marraztu bazituen ere, Aramaioko eta Arabar Mendialdeko baserriar bikoteak Madrilan egin ziren. Izan ere, orduko jostailuak eta ihauterietako gaiak lantzen zituen F. Losada enpresa madrildarrak egin zituen Gasteizko erraldoiak.

1923 Urte hartan, erraldoiei eta buruhandiei

Gargantua gehitzen zaie. Hori ere, bere lagunak bezalaxe, herriaren dirulaguntzari esker erosi zen.

1943 Heraclio Fournier lantegiak karta jokuko erregeak oparitzen dizkio Gasteizko Udalari. 1962an desagertzen diren erraldoi haiek Victor Gebara eta Enrique Saez artista gasteiztarrek egin zituzten.

1984 Mende hasieran kalez kalez dabilzan hainbat buruhandi berreskuratzen dira.

1991 Karta jokuko erregeak berriz agertzen dira Gasteizko plazan. Oraingoan berriak ditugu eta Heraclio Fournierrek egin ditu berriro.





Abel Enbeita

Uda, beroa ala eroa?

San Joan bezperako suarekin batera udaratu ginen. Udak beroa omen dakar. Aurtengoak oraindik gutxi. Baina hala ere iritsi zaigu.

Santurik ugarienak edota santurik santuenak ere urteko garai honetan kokatzen dira. Kasualitatez? San Joanak, San Pedroak, Santixauak... Euskal Herri guztian ospatzen diren santu edo jaiak direla dirudi. Eta ondoren, hauen ajea ondo sendatu baino lehen, Iruñako San Fermin jai internazionalak. Aurten gainera, uztailari Santixau biharamunerartekoa ohostuz, ABIALDIAN Euskal Herria zeharkatuz. Bada zerbait.

Gutxi balitz, abuztuko lehen bi asteetan, Andre Mari Zuriaren jaiak. Hilaren lauan zerutik jeitsi eta bederatzian Zeledon berriz zeruratu bitarte, Gasteiz loak hartu ezinda. Dena umorea, saltoa, dena "blusa", txanpana eta... dena saltsa. Tarteka baita herri erreibindikazioren bat edo beste.

Nahiz eta guztiak ados jartzea oso zaila izan, gehienek behintzat, zerbait gustoko edo gogorik aurkitu ahal izango dutela uste dut jai haundi hauetan. Haurrentzako

barraka, buruhandi edo beste mila motatako jolasak... Gazteek, oi gaurko gazteak...!, gaupasak egiteko aukera paregabeak, rock kontzerturik ez baitzaie faltako... Helduxeagoek folk edo beste herri kantaldiak... Kirolzaleek kirolak...

Gasteizko alde eta auzo bakoitza kolore ezberdinez jantziko da egun hauetan, toki bakoitza bere bereizitasunarekin.

Euskaltzaleoi bereziki, Matxete enparantzak zabalduko dizkigu bere ateak, egunez egun hainbat eta hainbat ekintza eta ekitaldi taularatuz, hala nola, kantaldiak, trikitixa, dantzaldiak, eguneroko bertso saioak eta abar luzea. Eta guztia sagardo edo Errioxako ardo gozoarekin batera, txistorra edo beste zerbait dastatzeko aukerarekin.

Beraz, ez dago aspertzeko aitzakiarik. Saltsan murgiltzea besterik ez da faltako jaiak alai eta gustora ospatzeko. Ea eguraldia ere alde dugun eta animo guztiok. Jaiak jai urtean behin baitira bakarrik. Gora Zeledon!

Gora ala behera...? Auskalo.



Mikel Garmendia

UDAKO ETENA

Gero eta usuago irakurtzen dira gure artean "ez dakit artikulua hau argitaratzeko zertan izango diren gauzak" edo antzeko hasierak. Berdin hasi beharrean nago ni ere. Izan ere, hain azkar baitoaz gertakariak gure herri honetan!

Aitortu beharra daukat, gainera, beste artikulutxo bat nuela idatzia jaietako ale honetarako. Harez gero gure herrian gertatutakoek, baina, hura baztertu eta berri bat idaztera behartu naute; auskalo berri honek ere zenbaterainoko gaurkotasuna izango duen argitaratzen denerako.

Jaiak berezkoa dute urte osoko lan-katean halako eten- edo izatearena. Egin dezagun bada etena. Egin dezagun etena bere zentzurik zabalenean, sekula ez baita txarra autokritika egitea, edo nahiago bada, nork bere buruarekin kontu-garbiketa egitea.

Egungo hedabideetan ezin konta-ahala eztabaida,

mahai-inguru eta horrelako egiten da, alfer-alferrik nire ustez. Alfer-alferrik, zeren inondik inora ez baita ageri horrelakoetan autokritikarik. Inork "halakok halako egin zuen" esan orduko, hortxe aterako zaio kontrakoa "bai, eta beste halakok beste halako egin zuen" esaka. Justu kontrakoa da, bada, autokritika: ispiluaren aurrean jarri eta nork bere okerrak onartu eta zuzentzen saiatzea, besterenak alde batera utzirik. Horretarako autokritikaren beharra eta balioa onartu behar, noski.

Ba al du zerikusirik horrek guztiak Gasteizko jaiekin? Nik baietz uste. Nik irudikatzen ditudan Gasteizko -eta beste edonongo- jaiak kontzienteki besta egitea erabaki duten pertsona libreen jaiak dira. Nork bere kontzientziarekin zorrik gabe eta norberaren erabaki askea lehenetsiz gauza ororen gainetik.

Besta on eta baketsuak denontzat!



Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA



izozkiak

Aihotz plaza Hemengoa eta geurea



GASTEIZKO jaietan, Aihotz, Machete, plaza euskaldunontzat ghetto bihurtu nahi izateak leporatu zaio Udalari behin baino gehiagotan; Roberto Alvarez, bertako programazio arduradunak, berriz, euskarazko ekitaldiak jai-gune guztietan zehar banatuz gero sakabanatuegiak geratuko lirakeela uste du: "Jendeak badaki nora jo behar duen bertsolariak, trikitilariak edo euskal musikako kantaldiak entzutera, bestela euskarazko programazioa jaietako egitarau zabalean galdu egingo litzateke".

Egunean zehar dauden ekitaldien ordutegia ere finkatu egin da, nolabait: eguerdian trikitixa eta bertsoak, arratsaldean dantzak gehien bat eta gauz kantaldiak: "horrela gasteiztarrek orduoro zer topatuko duten badakite eta errazagoa da jendea erakartzea".

Alvarezek dioenez gainera, urtero egon ohi da euskarazko kontzertu edo ekitaldiren

bat beste jai-guneren batean: "aurten Maixa eta Ixiarrek Foru enparantzan joko dute. Eta ziurrenik, plaza bete egingo dute; hori ere kontutan hartzen dugun kontua da: Machete plaza jendez gainezka egoten da askotan, baina ekitaldi horiek Foru enparantzan jarritz gero plaza erdi hutsik geratzeko arriskua dago, eta egitaraua osatzean hori gertatzea ekidin nahi dugu".

Nola edo hala, Aihotz plazak Andra Mari Zuriaren jaietara hurbiltzen den euskaldunontzat topagune izatea lortu du: "Hasieratik zehaztutako ideiarekin darraigu: hemengo ekitaldiak hartzeko gunea da Aihotz plaza, eta urtez urte egindako lana eta egitaraua esker erreferentzia izatea lortu du".

Era horretan, egitarauak, euskal produktuak saltzen dituzten txosnek eta jendeak berak giro berezia ematen diote Alde Zaharreko txokoari.

Fuskal giroa Zita berezi bi

Kontzertu, emanaldi eta saio guztien artean zita berezi bi egongo dira aurten Aihotz plazan. Bi txapelketa: Euskal Herriko Haurren Dantza Txapelketa eta Arabako Trikitixa Txapelketa.

Abuztuaren 7an, arratsaldeko zazpitan, Euskal Herriko Haurren II. Dantza Txapelketa burutuko da.

Abuztuaren 8an, berriz, Arabako III. Trikitilari Txapelketa eta Arabako Haurren I. Trikitilari Txapelketa egingo dira. Arabako Trikitilarien Txapelketa Aihotz plazako urteroko zita bihurtu dute antolatzaileek.

Hala ere, aurten berrikuntzarik izango da: Haurren Txapelketa. "Aurten gaztetxoentzako txapelketa lehen aldiz antolatzea erabaki da, ez baitzitzaigun oso bidezkoa iruditzen adin guztietako lehiakideak txapelketa bakarrean sartzea".

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korrieria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

Denetik eta denontzat



ROBERTO

Alvarezek jende multzo jakin batentzako egitaraua dela esan arren, Aihotz plazak ekitaldien araberako "tribu" ezberdinak hartuko dituela igarri daiteke.

Eguerdiko hamabi eta erdietan izango dira eguneko lehen ekitaldiak. Trikitilari, alboka-

lari eta bertsolarien esku ordu biak aldera arte iraungo du eguerdiko saioak. Urtez urte, jende gehiago biltzen duten bi ekitaldiak dira goizeko horiek, bertso saioa gehien bat.

Abel Enbeitak gidatutako ekitaldiek entzule asko bildu ohi ditu, askotan bertsolaritzaren historian urrezko letrez idatziko diren saioak ez izan

arren. Hala ere, gasteiztarrek bertso saioak entzuteko aukera gutxi izanda, ez dute aukera alferrik galtzen uzten, nahiz eta batzutan, aurreko eguneko parrandak lagatako ajeak bertsoez gozatzeko gaitasuna dexente murriztu.

Bertso saiora joateak, gainera, euskal produktua saltzen dituzten txosnetatik oste-ratxoa egiteko aitzakia ematen du eta batek baino gehiagok lo gutxi egiteak uzten duen lausoa sagardoa eta txistorra hartuz uxatzen saiatzen da urtero.

Arratsaldeko zazpitan itzultzen da musika Aihotz plazara, ekitaldirik tradiziozkoenetakoa ordua da: txistulariak eta dantzak. Zortzi eta erdietan Udal Folklore Akademiak Dantza Plazan ekitaldia egingo du egunero jende guztiaren

parte hartzea bultzatu nahian.

Gaueko hamaika eta erdietan, iluntzeko lehenengo poteoa eta gero, plazako txosnetan taloa edo bokata hartzeko orduan hain zuzen ere, eguneko azken ekitaldia hasiko da: kantaldia. Denen gustoko kontzertuak ekartzen saiatu direla azaldu zuen Roberto Alvarezek; musika mota ezberdinak entzun ahal izango direla behintzat. Egia da. Balerdi Balerdi eta Bittor Aiaperen kontzertuak gazteenak bilduko dituzte; Muguruza anaien Joxe Ripiau-k, dantzan jarriko du jendea ska eta karibeko doinuen bide-tik; Ganbara-k tradiziozko euskal kantuen erreper-torioa ekarriko du eta Basajaun-ek berbena giroan itxi-ko ditu aurtengo kantaldiak.

 Leire Lopez de Aberasturi

NESKA BAT

behar da etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko goizez

☎ 22 79 79 (Arantza)

abuztuaren azken astean deitu

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

5 EGUN ETA HELBURU 1: AZKEN EGUNERAINO IRAUTEA



☞☞☞

4, astelehena: Gaueko 12etan, Foru enparantzan, bexamelaz eta pastelaz beteriko kontzertua: Maixa eta Ixiar

☞☞☞

5, asteartea: Eguerdiko ordubatean, Beatles taldearen musika Gasteizko Udal Musika Bandaren eskutik

☞☞☞

7, osteguna: Gaueko 11etan, Tanttaka Antzerki taldearen "El Florido Pensil", Principal Antzokian

☞☞☞

9, larribata: Eguerdiko ordubata eta erdietan, Aihotz Plazan, Jon Enbeita, Ireneo Ajuria eta Jon Lopategi bertsolariak



abuztuak

4

asteflehena

zidak

13,00:

Andra Mari

Zuriaren plaza

Txupinazoa eta
Zeledonon jeitsiera

14,00:

Foruen plaza

Kontzertua: Maixa eta
Ixiar

19,00:

Mikel Deunaren

eliza

Bezperak: lore eskeintza

Santa Barbara

plazan

Biasteriko txaranga

20,00:

Principal

Antzokia

"Hotel Fiesta"

antzeslana, Fernando
Estesorekin.

20,30:

Aihotz Plazan

Larrain Dantza eta
Txulalai, Udal Folklore
Eskolako gaiteroekin

22,00:

Erdialdeko

kaleak

Farolen Prozesioa

23,30:

Aihotz Plaza

Kantaldia: Balerdi
Balerdi taldearekin

Olagibel kalea

8 zezensuzko eta musika,
txaranga eta fanfarreekin

1,00:

Arka plaza

Dixieland gunea: "20.eko
urte eroak"

Jaiak eta enskara

Alberto Saez de
Lafuente 'Triki'



Trikitrixa Kontrairo
taldeko musikaria

Kaxo lagunok, Geu Gasteiz
aldizkarikoek Gasteizko jaietan
euskararen egoerari buruz
komentario bat egiteko esan
didate eta lau hitzetan hau da
pentsatzen dudana:

Nire ustez, jaietan ed parran-
dan, alkoholaren poderioz,
edota alaiago zaudelako gehia-
go egiten da euskaraz. Ikasten
ari denak, lotsa gutxiago dau-
kalako eta dakienak traba gu-
txiago daukalako, alegia, eus-
kaldun peto-petoa denak edo
euskaldun zaharra denak egoe-
ra horietako errazago egiten
duelako.

Gasteizko jaietan gauza bere-
bera suertatzen da, gainera,
Gasteiza kanpotik etortzen den
jendeagatik, euskaldunagoak
diren tokietatik, euskaraz

gehiago entzuten da oraindik.

Aprobetxatuko dut esateko
Gasteizko jaietan euskaldun
berri direnek edo hutsik batue-
raz egiten dutenek oso aukera
onadaukatela beste euskalkiak
lantzeko. Esan behar da ere,
jaietan jendea, nolabait jarrera
toleranteagoa daukala, eta
normalean, euskararekin mos-
keatu ohi dena, jaietan ez da
hainbeste moskeatzen. Halere,
seguraski jaietan ere, euskaraz
hitz egiteagatik batek baino
gehiagok arazoren bat izan du,
eta ez dut orokortu nahi. Ibilt-
zen zaren lekuarekin dauka
zerkusia, jakina, zeren guztiok
dakigun bezala, Gasteizen alde
batzuk beste batzuk baino eus-
kaldunagoak baitira.

Bukatzeko, esango dizuet
Gasteizko jaietan leku guztieta-
ko jaietan bezala, errazago
egiten direla lagunak, eta
gehiago ligatzen da ere. Euska-
raz hasi ezkerro, harreman eus-
kaldunak izango dituzue betira-
ko.

Ondo pasa eta lehendabiziko
hitza euskaraz!



LANDABURU AKADEMIA KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ!!!

GUATEMALA - 12, BEHEA TFNOAK: 12 09 50 / 909 42 88 36



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

**matrikula
zaitez!**

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

zitak

12,00:

Bixente

Goikoetxea

plazan

Kutxo eta Jai pailazoak

19,00:

Aihotz Plazan

Txistulariak

9,00:

Plaza

berria

Dianak Udal
Musika
Bandarekin,
hainbat fanfarre
eta txarangak
lagunduta



11,00:

Zezen plazan

Txekorrak

11,30:

**Aialako Jonen
plaza**

Bataioa globo
aerostatikoan

12,00:

Zezen plazatik

Kalejira Arabako
Trikitixa Elkartearekin

13,00:

**Peñafloridako
kontearen
plaza**

Txotxongiloak Bihar
taldearen eskutik

Foru plaza

Herri kirolak

13,30:

Aihotz plaza

Bertsolariak: Jon Maia,
Unai Iturriaga, Igor
Elortza

13,45:

Plaza berritik

Zezen plazara

Zezenetarrainoko paseiloa

13,00:

Zezen plaza

Zezen ikuskizuna

Floridako

parkea

Haur animazioa
Hortzmuga taldearekin

**Peñafloridako
kontearen**

plaza

Gargantua

abuztuak

5

asteartea

20,30:

Zezen plazatik

Zezenetatik itzulera

Aihotz plazan

Larrain dantza eta txulalai
Udal Musiketxeko
gaiteroekin

23,00:

Salburuan

Su artifizialak

23,30:

Aihotz plazan

Kontzertua: Bittor Aiape

00,00:

Foru plazan

Kontzertua: Celtas Cortos

1,15:

Probintzia plaza

Saltsa 'Carnaval Brasil'
taldearekin

7,00:

Alde zaharrean

Prozesioa eta errosarioa



egitaraua

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

J A T E T X E A



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldianar • GASTEIZ



1997ko JAIK

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

egitaraua

abuztuak

6

asteazkena

10,30:

Babesgabetuen

auzoa

Biasteriko txaranga

Abetxuko

auzoan

Lantziegoko txaranga

11,00:

Zezen Plaza

Txekorrak

12,00:

Bizente

Goikoetxea

kalea

Txikilandia pailazoak

12,30:

Aihotz Plaza

Trikitixa eta Alboka

Musiketxeko musikariek

13,00:

Foruen Plaza

Herri kirolak

Peñafloridako

zitak

13,30:

Aihotz plaza

Zigor Enbeita, Rikardo

Glez. de Durana eta

Asier Iriondo

10,00:

Principal

Antzokia

Tanttaka taldearen 'El

Florido Pensil'

kontearen plaza

Politxinela txotxongiloak

16,45:

Plaza Berritik

Zezenetara paseiloa

18,00:

Zezen Plaza

Zezen ikuskizuna

Peñafloridako

kontearen

plazan

Gargantua

18,30:

Santa Barbara

plazan

Biasteriko

txaranga

Judimendi

auzoa

Lantziegoko

txaranga

19,00:

Aihotz

Plaza

Kresala dantza

taldearen 'Ioiak'

ikuskizuna

23,00:

Salburua

Su artifizialak

23,30:

Aihotz Plaza

Ganbara

24,00:

Foruen Plaza

Greta y Los Garbo



BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK

berreskuraturiko egurraz eginak

eta **OSAGARRIAK**

artisan lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

Herreria 38, behea
25 25 03



*Tu Invernadero
zure lore sortak*

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

**SAN FRANCISCO
KANTOA 4
-GASTEIZ-**

**PARRAL
TABERNA**

• ASTERIKO KONTZERTUAK ANTZERNAK
• JANTOKI BEJETERIAK • PINESAK

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

plató
TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10

22 65 64
GASTEIZ

IV
egitaraua

1997ko JAIK

zitak

13,30:

Aihotz Plaza

Bertsolariak: Lizaso,
Egaña eta
Peñagarikano

23,30:

Aihotz Plazan

Kantaldia: Joxe Ripiau

10,30:

San Martin

auzoa

Arabar Errioxako
txaranga

11,00:

Zezen Plaza

Txekorrak

12,00:

Erdialdea

Burahandiak eta
erraldoiak

12,30:

Andra Mari

Zuria

Zeledon Txikiak
aurrekua dantzatuko du

13,00:

Plaza Berrian

Txupinazoa eta Zeledon
Txikiren jeitsiera

Foruen plaza

Herri kirolak

13,30:

Peñafloridako

kontearen

plaza

Kixka pailazoak

16,45:

Plaza berritik

Zezen plazara

Zezenetarainoko paseiloa

18,00:

Zezen plaza

Zezen ikuskizuna

Floridako

parkea

Haur animazioa Auskalo
taldearekin

18,00:

Zezen plaza

Zezen ikuskizuna

Floridako

parkea



Haur animazioa Auskalo
taldearekin

17,00:

Aihotz Plaza

Haurren Euskal Herriko
II. Dantza Askearen
Txapelketa

20,00:

Principal

Antzokia

Tanttaka taldearen "El

abuztuak

7

osteguna

Florido Pensil"

23,00:

Salburua

Su artifizialak

00,00:

Foruen Plaza

Navajita Platea

1,00:

Arka Plaza

Zubipeco Swing

egitarava



eguneko menua



KUTXI
kalean



LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxillera, 33 tfnoa. 25 02 39



ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

1997ko JAIK

egitarava

abuztuak

8

ostirala

9,00:

Miguel

deunaren eliza

Meza Santua blusa
beteranoekin

10,00:

Plaza Berria

Bereziak blusa taldeak
antolaturiko gastronomi
lehiaketa

12,00:

Bizente

Goikoetxea

kalea

Los Inquietos pailazoak

12,30:

Aihotz Plaza

Trikitixa eta Alboka
Legutioko Pagoxueta
Eskolarekin

13,00:

Foruen Plaza

Herri kirolak

Arka Plaza

Zubipeco Swing

16,45:

Plaza Berritik

Zezenetara paseiloa

18,00:

Zezen Plaza

Zezen ikuskizuna

Peñafloridako

kontearen

plazan

Gargantua

19,30:

Amarika Plaza

Jazza: Moliendo Cafe



19,00:

Aihotz Plaza

Arabako Trikitilarien III.
Txapelketa eta Haurren
Arabako I. Txapelketa

23,00:

Principal

Antzokia

"Decíamos ayer", Amparo
Larrañagarekin

Salburua

Su artifizialak

23,30:

Aihotz Plaza

Kantaldia: Basajaun

24,00:

Foruen Plaza

Ella Baila Sola

zidak

12,20:

Amarika Plaza

Beteranoentzako
dantza txapelketa

13,30:

Aihotz plaza

Bertsolariak: Oihane
Perea, Dani Kastaño
eta Asier Otamendi



UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ




ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

IPARRA

taberna

Giro ezin hobe!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ



TABERNA

Upabi

San
Antonio, 39

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

zitak

13,00:

Floridako

Parkea

Haur animazioa
Azkona taldearekin

23,30:

Foru Plaza

Reverendo Parker

10,00:

Zaramaga eta El

Pilar auzoak

Arabar Errioxako txaranga

11,00:

Zezen Plaza

Txekorrak

12,00:

Erdialdean

Buruhandiak eta

erraldoiak

12,30:

Aihotz Plaza

Trikitixa Aguraingo
Eskolarekin

13,00:

Foruen Plaza

Herri kirolak

Peñafloridako

kontearen plaza

Antzeskizuna
txotxongiloak

13,30:

Aihotz Plaza

Bertsolariak: Jon Enbeita,
Irineo Ajuria eta Jon
Lopategi

13,45:

Plaza Berritik

Zezenetara paseiloa

13,00:

Zezen Plaza

Zezen ikuskizuna

Peñafloridako

kontearen plaza

Gargantua

19,00:

Aihotz Plaza

Dantza Plazan ikuskizuna
Musiketxeko dantzari eta

abuztuak

9

larunbata

musikariekin

20,30:

Aihotz Plazan

Txulalai eta Larrain dantza
Musiketxeko gaiteroekin

23,00:

Principal

Antzokia

"Decíamos ayer", Amparo
Larrañagarekin

24,00:

Probintzia Plaza

Los Charros, rantxerak

1,00:

Andra Mari


Zuriaren Plaza

Zeledonon igoera eta jaien
amaiera

1,15:

Plaza Berria

Cuadrilla latina orkestra



egitaraua



Modeloa: F. Narváez "Kiko" Traffic betaurrekoekin Ref.: TF 950465

Eguzkitako moda modazko jendearentzat

Merkatuko eguzki betaurrekorik eksklusiboenak
Mendia Optikan, beste inon ez dituzu aurkituko.

EGUZKI
BETAURREKOETAN

1ak

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ



LOR ITZAZU
MENDIA OPTIKAN
TRAVEL CLUB
EGITASMOAREN
PUNTUAK.

RAY-BAN • SILHOUETTE • GIULIO TABACCHI • VOGUE • DUCCHI • POLICE • VOGART • ANGARO • STING • C. DIOR • AVENUE • SISLEY • LOIS • TRAFFIC • XS • PACO RABANNE

1997ko JAIKAK

egitaraua

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ




JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Zeledon

40 urteko historia

Ikarrizketa



Gasteizko jaiak gainean ditugu eta, urtero bezala, abuztuaren 4an milaka gasteiztar beteko dugu Andre Mari Zuriaren plaza, Zeledonen zain. Arratsaldeko seiak jota zerutik jaitsiko zaigu Zeledon festak gasteiztar guztioi ekarri guran. Une horretantxe hasi eta sei egunetan zehar poza eta algara nagusi izango dira gure hirian. Aurten, lehendabiziko jaitsieratik berrogei urte betetzen direnez, urteetan zeledonena egiten ibili izan diren hiru gasteiztarrengana jo dugu, José Luis Isasi, Enrique Oribe eta Maki Landarengana, hain zuzen ere. Eurek erakutsiko digute datozen lerrootan Zeledonek egindako jaitsieren ibilbide historikoa.

Hasierako urteak

Zeledon pertsonaia mitikoa dugu Arabako historian. Zalduondo herrikoa izatez, urte askotan Gasteizko Zapatari Klean bizi izan omen zen XIX. mendean Zeledonek berak "leiho eta balkoiarekin" eraikitako etxean, aurreko mendetik

gaurdaino belaunez belaun heldu izan zaigun kantaren leloak azaltzen digunez. Kantu herritar horri esker, Zeledonen ospea berehala zabaldu zen bazterretan eta gasteiztar jatorraren eredu bihurtu da apurka-apurka.

Hala, 1917ko jaietako erraldoi eta

buruhandien konpartsan ageri da aurrenekoz Zeledonen irudia, buruhandien artean. Bultzadarik handiena, ordea, hogeigarren hamarkadako hasieran sortu zen "Celedon" izeneko aldizkariak (gaur egun urtero kaleratzen dena oraindik) eman zion gure Zeledoni. Bertan, Arabako historiak duen pertsonaia mitiko honi

vitrales

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

MIKEL DELIKA

UDAN

IKASI EUSKARA KORRIKA!

Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00

buruzko *aleluyas* izeneko umorezko bertsotxoak argitaratu ziren eta haien mamia irudietara ekarri nahian, Obdulio López de Uralde marrazkilariak Zeledon zerutik behera zetorrela marraztu eta irudikatu zuen, bertsoen osagarri.

Aurreneko jaitsiera

Ildo hartatik abiatuta, "1957. urtean Mariano López de Gereñu, Luis María Sánchez Iñigo, Javier Azpiazu, Jesús Jiménez, Amado López de Ipiña, José Luis Madinabeitia, Jesús Pérez de San Román, José Luis Isasi eta José Mari Sedanok osatutako gasteiztar lagun taldeak Zeledon pertsonaia berpiztea erabaki genuen. Horretarako, orduan alkate zebilen Luis Ibarra Landeterengana jo genuen baimena eskatzera eta berak egiten utziko zigula esan zigun, baina dena gure ardurapean", diosku José Luis Isasik 22 aldiz Zeledon izandakoak

Beraz, Zeledonon mitoa berpizteko hainbat aukera proposatu zituzten euren artean: helikopteroa erabiliz, hegazkinenez, globoz... "Orduan, buruan genbiltzan aukera guztiak aztertu eta gero, ohartu ginen irtenbiderik hoberena kable bat luzatzea zela San Migueletik Plaza Berriko Udaletxeko hormetan dagoen armarriraino", adierazi digu José Luis Isasik. Hortaz, arratsaldeko seietan txupinazoa piztutakoan, inori ezer esan gabe, Zeledonek lehendabiziko bidaiari ekin zion Plaza Berrira bil-

dukaren artean izugarrizko arrakasta lortuz.

Hala ere, azken orduan eskuratutako kablea, antza, ez zen behar bezain gogorra eta Zeledonon lehenengo bidaia San Migueleko teilatuen gainean amaitu zen. "Zeledonon bidaia hasi zenerako Luis Mari Sanchez eta biok Udaletxeko armarraren atzetik geunden izkutaturik eta, erori arren, purua piztu, aterkina zabaldu eta bildutakoak agurtzera aterata nintzen", gogoratzen du.



geu gasteiz

"Zeledon
berpiztutakoan
lortu zuten
Gasteizko jaiek
egun duten
ospea"

geu gasteiz

Gasteizko komunikabideek ezezik gasteiztarrek ere ikaragarri ondo hartu zuten ideia eta hurrengo urteetarako Udalak kable bat luzatu zuen San Migueletik Udaletxeraino. Aipatu bederatz lagunek izan zuten burutazioak sekulako harrera ona izan zuen. Ordutik aurrera, aldea badago hasierako eta ondorengo Gasteizko jaien artean. "Lehen jaietan zer edo zer falta genuen: hor zeuden blusak, zezenak, baina zer edo zer behar genuen, eta Arabako pertsonaia hau berpiztean hasi ziren irabazten Gasteizko jaiek gaur egun duten



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

ospea. Ni oso ezaguna izan nintzen, garai hartan oso biztanle gutxi baitzuen Gasteizek”, jakinarazi digu 22 alditan zeledonena egin duenak. “Zeledonon jaitsiera edo igoera Olentzero edo Erregeen kabalgataren antzekoa da, baina Zeledonenean nagusiek ere hartzen dute parte. Momentu horretan Zeledon zarela uste du jendeak”, Dena den, 22 urte horietatik guztietatik 1976koa oso ondo du gogoan Isasik. “Urte hartan martxoaren 3ko gertakariak izan zirela-eta hainbat langile hil zituen poliziak, eta erabaki nuen ez jaistea. Oso urte tristea izan zen denontzat”, saminduta azaldu zaigu une batez larogeigarren hamarkadara arte Zeledon izan den gizona.

1976. urtekoa

1976. urtean Zaramagako San Francis-

co elizan gertaturikoa airean zebilen etengabe. Sektore askotatik, blusa talde batzuetatik ere, jaiak bertan behera uztea proposatu zen. Era berean, José Luis Isasik ez jaistea erabaki zuen. Enrique Oribek, berriz, jaietako arduradun batengana jo zuen eta bere burua eskeini zuen jaitsiera egiteko. Biurtean, Gasteizko Udaletxean urte hartako jaiak ospatzea ala ez eztabaidatzen ari ziren udaleko arduradunak. Azkenean, bozkatu eta baiezkua atera zen. Gero, 1976ko abuztuaren laua ere iritsi zen eta arratsaldeko seiak aldera giro nahasian eta tentsio artean jaitsi zen Enrique Oribek lehen eta azkenengo aldiz, hurrengo hiru urteetan, 1980ra arte, Isasik berriro ekin baitzion zeledonon lanari. “Zeledonon tradizioa etenda geratzeko arriskua ikusi nuen orduan. Gainera, niri Zeledon ez jaistea pena ematen zidan eta, horrega-

tik, neure burua eskeini nion Udalari 1976ko abuztuaren lau hartako jaitsiera egiteko. Andre Mari Zuriaren Plazan tentsio handia izan arren, jaitsi nintzen bertara”, esan digu Oribek.

Iñaki Landaren urteak

Isasik 1980. urtean erabaki zuen Zeledon ibiltzeari uztea: “22 alditan jardun ondoren, zahartuta ikusten nuen nire burua eta Iñaki Landari laga nion lekua”. Iñaki Landak, ordutik aurrera berpiztarazten du pertsonaia mitikoa urtero: “oso urte berezia izan zen niretzat, eta oraindik ondo gogoratzen dut hura, Isasik postua eskaini zidanean ez nekien oso ondo non sartu nintzen. Gainera, gauzak prestatzeko astirik ere ez geneukan ia ia, komentatu baitzidan egun gutxi gelditzen zirenean”, gogoratzen du Eharikoak.

Ordutik hona, 17 alditan izan dugu Zeledon Iñaki Landa: “egia esan, nik ez nekien ezer eta horrela da. Egun batetik bestera Zeledon nintzen, izugarria izan zen niretzat. Dena den, dena egin eman zidaten eta asko eskertzen diot Isasiri guztia”, dio Landak.

Horrelakoxeak dituzu Zeledonon jaitsieraren gorabeherak azken 40 urteotan eta Zeledon gure artera jaisteari urte mordotan eutsiko diolakoan gaude. Beraz, Isasi, Oribek eta Landak izandako esperientzia zoragarria izan dela aitortu digute eta, horrekin batera, oso jai zoriontsuak izan ditzazula opa nahi dizute, irakurle. Artikulu hau bukatutzat emateko ederra bota digute hitzetik hortzera: “Gu ez gara Zeledon, gasteiztar eta arabar guztiok garelako Zeledon”.

 **Karlos Fernandez de Betoño**

geu gasteiz

“Gu ez gara
Zeledon,
gasteiztar eta
arabar guztiok
garelako
Zeledon”

geu gasteiz



eIRE PUB

GASTEIZKO IRLANDAR TABERNA

Florida, 3
(legebiltzarraren aurrean)



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

**Karta betiko eta oraingo
platerekin**

Eguneroko Menua

Betiko kazuelatxoak

JAI ALTERNATIBOAK

"Txosnen esparrua gasteiztar guztionak da"

Hogeita bat txosna egongo dira aurtengo Andre Mari Zuriaren jaietan Katedralaren inguruko lorategietan. Iaz baino bi gehiago. "Oso ondo zaindu beharko ditugu txosnetako neurriak, betiko tokian sartzeko estu eta larri ibiliko baikara" azaldu du Juan Carlos Molinak, Txosnen Batzordeko kideak. Denei lekua egiteko eskenatokiaren aurrean gertatzen den pasilotxoan bi txosna jarri beharko dira, bakoitza alde batean.

Txosnen Batzordeak egiten du jai esparru alternatiboaren antolatze lan guztia eta parte hartzen duten taldeek ordaintzen dute egitarauaren aurrekontu osoa. Aurrean ia lau milioi pezetakoa. Txosnen Batzordearen eta Udalaren arteko harremanak ez dira beti atseginak izan; Batzordeak Udalak ez duela ardura hartu nahi salatu du. "Batzuek Bialitate Sailaren kontua dela esaten digute, besteek Kultura Sailarena dela....Gauza da sekulan ez dugula ezer lortu; Udalak gutxieneko azpiegitura jarri digu eta kitto". Gasteizko Udalak argindarra jarri eta argiztapen orokorra hartu du bere esku. Horretaz aparte, txosna bakoitzak berea ordaindu behar du.

Denontzako jaiak

Jai esparru alternatiboko ekitaldiek Udalak prestatutako egitaraua osatzen duela aldarrikatu du Batzordeak. "Udalak egiten duen egitarau ofizialak ez du gasteiztar guztien nahia asetzen, arlo abertzale eta aurrerakoietan mugitzen garenon nahia ez, behintzat. Horregatik antolatzen da jai esparru alternatiboa"

Jai egitarau ofiziala osatzen duen programazio alternatiboa ere "gasteiztar guztionak" dela azpimarratzen du Molinak, "jaiak antolatzea gure gain hartzen dugun lan itzela da. Hori dela eta eskatzen zaio Udalari aurrekontuaren zati bat ordaintzen laguntzea behinik behin, baina ez du inoiz onartu eta txosnek ateratako dirutik ordaintzen dira ekitaldiok"



"Jai" giroa

Gasteizko jaiak hasteko hamabost egun eskas falta zirela sortu zen txosnen esparruari buruzko auzia: PSE-PSOEek jai eremu alternatiboan zein txosna eta elkarte parte hartuko zuten erabakia Udalak har zezan eskatu zuenean. Udal Batzak hurrunago joatea erabaki eta Alkateak Txosnak debekatzeko agindua kaleratu zuen.

Udal Batzaren arrazoi nagusia "txosnetan mundu erradikala biltzen dela" izan zen eta debekua "istiluak ekiditeko asmoz" egin zela azaldu zen. Era berean, Udalak Txosnen Batzordeak ez zuela legea betetzen eta ez zuela baimenik eskatu salatu zuen. Azkenik, "Batzordeak hainbat talde kanpo utzi" dituela aipatu zuen.

Txosnen Batzordeak puntuz puntu erantzun zien Udalak egindako salaketa guztiei prentsaurreko batean. Txosnen esparruan politika egiten delari buruz, "bitxia da, guk politika egiten dugula esaten da, baina Andres Sanchez jaunak Norma Duval ekartzen duenean, adibidez, ez al da politika egiten ari? Gure ustez bai, horixe baita inposatu nahi diguten kultura, eta egitarau ofizial guztiak kultura horren kutsua dauka. Txosnek kultura eta euskara lantzen dute; ez luke

politizaturik egon behar" erantzun zuen Batzordeak.

Legalitatea betetzen dela ziurtatu zuten, iaz indarrean jarritako legearen aginduz, aurrean bezala, 1996an ere, aseguruia kontratatu zela azalduz. "Baimenik ez eskatzeari buruz berriz, urte osoan zehar Udalarekin harremanetan gaudela gogoratu behar zaie, Lazcoz eta Etxeandia zinegotziekin hain zuzen; gainera, beraiek jartzen dute argiztapen orokorra".

Azkenik, Batzordeak ez duela inor baztertu azpimarratu zuen: "Asociación de Ayuda al Emigrante en Carretera izeneko elkarteak eskatu zuen txosna jartzeko baimena. Batzordeak eskakizuna onartu zuen, baina datorren urterarte itxoin beharko dutela esan genien: urte osoan lanean egon eta gero, talde bat azken momentuan sartzea ez zitzaigun oso bidezkoa iruditzen".

GEU GASTEIZko erredakzioa itxi denerako ez da auzia konpontzea lortu, hala ere, bi aldeek hitz egiteko prest zeudela adierazi dute. Cuerdoak "istilurik egongo ez delako bermea" eskatu du eta Batzordeak "Txosnen esparrua gasteiztar guztionak dela" azpimarratu zuen.

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeak

Kutxileria 23

☆-IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



EGO LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tfn. 11 88 95

Jaiak eta erreibindikazioa elkarren ondoan

 Edu Lopez de Luzuriaga

"Jaiak ez dute eguneroko borrokan etenaldia izan behar. Aurtengoa, oso urte gogorra izan da mobilizazio arloan eta, egunotan, jaiak eta erreibindikazioak elkarrekin joan behar dute. Beharbada, inoiz baino gehiago". Hitz hauen bidez, jendea animatu nahi dute 'Senideak' eta 'Amnistiaren Aldeko Batzordeak' Gasteizko jaien inguruan antolatu diren ekimeten esku hartzera.

Gainera, 'Senideak'-ek azpimarratu nahi du zigorren hiru herenak bete izanagatik kalean egon behar luketen 114 euskal presoetatik hiru gasteiztarrek direla: Txema Martinez de Birgala, Xabier Izaga eta Satur Lopez Domaika, hain zuzen ere.

Ildo horretatik abiatuta, 'Senideak'-ek abuztuaren 2an burutuko den manifestaziorako deialdia zabaldu du Gasteizen. Honekin batera, 'Senide-

ak'-ek ondorengo manifestua kalera-
tu du, blusa koadrilek, Txosnen Komisioak, Urrezko Zeledoa jaso dutenek eta hiriko beste hainbat pertsonaia ospetsuk sinatuko dutelakoan:

* Euskal preso politikoen sakabana-tze politikak, ezlegezkora izateaz gain, zigor gaineratua suposatzen du presoentzat eta, zeharka, dohai-neko zigorra senitarteko guztientzat. Horregatik, neurri hori salatu eta berehala amaitu dadin esijitzen dugu,

* Euskal preso guztiak, sozialak eta politikoak, lehenbailehen Euskal

Herrira ekarriak izan daitezen, Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubide Batzordeak 1996ko urriaren 3an lortutako akordioak duen mamari helduz.

* Euskal preso politikoei elkarbizitazarako baldintza duinak izan ditzaten.

Aurrekoa bermatzeko, Euskal Herriko gartzeletan kokatuak izan daitez-
zen.

dugu,

* Botere publikoek, gizabidezko eta justiziazko eskakizun hauek aurre-ra eramateko beharrezkoak diren bitartekoak abian jarri eta erabaki politikoak har ditzaten.

* Honako akordioa, espainiar eta frantziar gobernuei igortzea erabaki dugu, eta Euskal Herriko instituzioei honako ebazpena euren agiteko gonbitea luzatzen diegu.

* Goian aipatutako puntuen aldeko jarrera adierazteko, Gasteizko Senideak-ek, 1997ko abuztuaren 2an deitutako manifestazioari atxeki-mendua ematen diogu.

Honez gain, Amnistiaren Aldeko Batzordeak hainbat ekintza antolatu dituzte jai egunetarako: Langraitze-rako martxa, herri-bazkaria, elkarta-sun ekonomikorako eguna,...



Gizaki orori be-zalaxe, preso ei dagozkien oinarri-zko eskubide-en aplika-zio inte-grala esi-jitzen

Floridako altxorra !

35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

usika

JAIK, MUSIKA

Jaiak eta musika, betidanik loturik izan ditugun bi hitz. Ez dago musikarik gabeko jairik, eta askotan ere, festeetara begira sortu da zenbait musika, zenbait abesti. Uda bat, abesti bat. Halaxe suertatzen da.

Hemen eta orain aurkezten dizkizuegun hiru lan havek bere lekutxo izango dute-abuztuaren lehendabiziko egun havetan; batzuek zabalagoa, beste batzuek, berriz, estuagoa.

Kokoteraino izango gara abesti havekin festak bukatutakoan? Batek daki! Dena den, eta oraingoz diskoetan gastatu nahi duzun dirua baldin badaukazu, hona hemen hiru aukera.

ROCK AND ROLLA, Ska, Dance, Trash eta Pop. Koma, M-Clan, Skalaria, Ken-7, Hemendik At! eta Berri Txarrak Taldeak eta bere musika. Seguru asko euren ez da udako abestia izango. Hala ere, hemendik merezita duten tokia zabaldu nahi diegu. Ea gogoko dituzun!

AURTENGO GORAKADA. abesti bilduma. GOR. 1997.

Bi ezaugarri elkartzen dituzte bilduma lan honetan agertzen diren bost taldeak: alde batetik, (nahiz eta Koma-k eta Skalaria-ek normalean erdaraz abestu) eskeintzen diguten abestia euskaraz kantatzea; bestetik, udazkenean kaleratuko duten lanaren aurrerapena izatea.

Halaxe da. Hurrengo hila-beteetan Koma, Berri Txarrak, Ken-7, Skalaria eta Hemendik At! taldeen diskak kalean izango ditugu. Baina ez gaitezen aurrera eta azter ditzagun banan banan mila



pezetan topatuko dituzun bost abestiak eta jaietan, beharbada, ase arte entzungo dituzunak.

KOMA eta "Marea Gora". Entzuna? Bai, jakina! Itoiz taldearen Musikaz Blai lan mitikoan agertzen zitzaigun jatorrizko "Marea Gora". Oraingo honetan ikaragarriko eraldatzea hartu du: ahots guturala, gitarra zorrotz eta ilunak, erritmo narrasturikoa... Itoiz KOMAren erara. Baina ez, KOMA ez zaigu euskarara pasatu, ez oraingoz. Kanta hau hurrengo lanaren salbuespena izango da. Lehenengo saioa? Ikusi beharko dugu.

Bigarren taldea, BERRI TXARRAK izenekoa, "500 Urte eta Gero?" abestiarekin datorkigu. Iazko Euskadi Gaztea Txapelketan bigarren postua lortu ondoren, beste sari bat heldu zaie eta udazkenean, azeleradorea zapalduko talde honen lana dendetan egongo da.

KEN-7, "Bi eta Bat". Erritmoa Rock and Rollean oinarriturik; melodia, berriz, Popen murgilduta. Lugarri taldearen abeslari ohiaren eta Exkixuren zenbait musikari elkartzeak ekarritako emaitza dugu KEN-7. Emaita dotorrea benetan.

SKALARIAK taldeak badu kalean bere estraineko diska, "O Neure Erri" euskarazko

abesti bakarra delarik, Aurtengo Gorakada honetan topa dezakeguna, hain zuzen. Zortzi musikari, dantzarako etengabeko gogoia, zuzeneko ederrak, Ska eta Reggae nota guztietan.

HEMENDIK AT!-en "Goazen" abestiak bilduma hau ixten badu ere, talde honi tokatu zaio euskal musikan bide berria zabaltzea. Zein bide? Dance musikarena. Ez zaitu antsikabe utziko, seguru!

M-CLAN. "Coliseum". BRO. 1997.

Badago Hegoaldean Murtzia izeneko lurralde bat. Badago M-CLAN izeneko rock-seikote harrigarri bat. Badaude Murtzian betiko Rock and Rollean bikain aritzen diren sei lagun, "Coliseum" izeneko bigarren diska kalean duten lagunak. Gasteizen ikusi genituen lehenengoz, orain hiru urte pasatxo. Euren Rock and Rollerako trebetasunez ohar-tu ginen berehala. Hilabete batzuk beranduago berriz ziren gure hirian estraineko diska aurkezteko asmoz: "Un Buen Momento". Bagenekiena baieztatu ziguten hartan: taldeak zuzenekoak dituela onena eta "Un Buen Momento" hori abesti bikainez beterik zegoela.

Hala ere, gehienetan gertatzen den bezalaxe, jasotako



Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEEKI

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoiak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoak •
neurritara egindako armairuak •

Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ

eta hiru DISKA Musika

kritika hobezinek ez zieten ekarri ez diska salmenta zabala, ezta kontzertu ugari ere. Bai, ordean, bigarren lan bat gauzatzeko aukera; orain esku artean dugun "Coli-



seum" hau, hain zuzen.

Eta zer du "Coliseum" honek horrenbeste adjektibo bikain merezi izateko?

Baditu hamahiru abesti, hamahiru, lehenengotik azkenera denak abestiak, betegarririk gabe. Badauka kalitate handiko soinua ere (Kanada aldera joan zitzaizkigun murtziarrak bilatzen ari ziren doinua lortzeko). "Coliseum"-ek badu azal dotorea (eta hori eskertzekoa da!), eta inportanteena, jakina!, goi mailako Rock and Rolla.

Diska zabaltzen duen lehenengo kantatik azkenengo minutura arte eusten diote gorentasunari M-CLANekoek. Giroak aldatzen dira, erritmoak arindu edo motel- du, baina maila musikala ez da inoiz jaisten.

Askok pentsatuko du The Black Crowes-en eragina nabarmenegia dela. Baita guk ere. Dena den, kaltegarria ote da eredu on bat izatea? Entzun "¿Dónde esta la Revolución?", "Cierta Sabor Amargo", "Domingo de Mayo" edo "Deja que lo Muerda Yo" abestiak eta zalantzak desagertuko zaizkizu. "Coliseum" ez da uda honetako diska izango, ez du salmenta handirik eragingo; baina, seguru asko, urteak eskainiko digun lan onenatariko bat bai izango dugula. Ziur!

SKALARIK, "Skalariak". GOR, 1997.

Hiru urte, besterik ez dute behar izan Skalariak taldearen lagunek euren estraineko diska kalean izateko.

1994. urtean taldea sortu zenetik hona, Iruñean erdi hilik zegoen Ska mugimenduak bultzada nabarmena jaso du, Skalariak protagonista nagusiak direlarik. Lehen pausoa 95eko bukean gertatu zitzaion Nafarroako lagun hauei. Lau pistatan grabatutako maketa batek Moon Ska Records zigiluaren arretra erakarri zuen. Ondorioz, Skalariak-en abesti bat entzun ahal izan genuen "Latin Ska Vol II" izeneko bilduman.

Hurrengo urtean boskotea zortzikote bihurtu zen; tronboia, tronpeta eta teklatura

gehitu zizkieten baxuari, gitarrei eta bateriari, zuzenekoak indartuz eta dantzarako eskaintza zabalduz.

Zuzenekoetan, hortxe datza, hain zuzen, iruñarren indarra. Beraz, ezaugarri horiek, jasotako kritika onekin lotuta, iratzarri zuten GOR argitaletxearen interesa eta, horregatik, 97. urteko apirilean bi diskarako kontratua zertu zen disketxe horrekin.

Lehenengoak ekainean ikusi du argia eta diskako ildoetan nabarmena da The Skatalites, Toots and The Maytals, Desmond Dekker, Banda Bassotti, Culture, Bob Marley, The Four Skins edota Euskal Herrian 80. hamarkadan Reggae eta Skan aritu ziren taldeen (Bal-



din Bada, Tijuana in Blue, Korroskada, Kortatu eta Potatoren) eragina.

"Skalariak" izeneko diska honetan Ska da nagusi. Berrogeita sei minututan

zehar Jamaikan sortutako soinuak indar berria hartzen du Skalarien musika-tresnetan; batzutan azkarrago, beste batzutan motelago. Hala edo nola, erritmo sinkopatua beti agerian.

"Sarrera" instrumentalak giroa berotzen du (txibiro, txibiro, OI!, OI!), eta atsedenik gabe "O Neure Erri" izenekoaren ska klasikoarekin lotzen da. Aurrerago "Calipso-Reggae" entzungo dugu; honetaz ez da ezer azaldu beharrak, tituluak berak garbi adierazten bait du.

Reggae sarturik, "Fuego de Revolución"-ekin batera lasaitasunerako unea heltzen da. Une laburra, zeren "Todos los Hintzas" (futbola eta Ska, betiko lagunak) eta "Agur Euskal Herriari" abestiekin sua berpizten bait da berriro.

"Jaia" festa bera da, haize musika-tresneen laguntzari esker, diskak duen doinurik alaiena. Ekaitzaren ostean, berriz, barea dator: "Txapel-dunak", agian, diskako onena.

Eta "Skalariak" hasi bezala bukatzen da: Ska, Ska eta Ska, Reggae, Reggae eta Reggae. Hamalau abesti guttira, hamalau dantza bizi.

Txabi Arnal Gil

EUSKAL OKELA LASAGABASTER harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ



Arte Ederre

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatzkiloak	otioak
akwarela	kaballetak	etabar

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

buruzko Sailik
zabalena ezagu ezazu

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

TURISTA



ABUETUKO
JALAK, PIKUTARA! AUR-
TEN KARIBERA
NOA!!



... LES DEFEA
FELIZ VIAJE A AN-
CHORAGE... GOOD-
MOORNING

AJA
HHA!

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIOZ-ORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I I
T U
Z N
U A
K

gure kultura zaintzen

ARABAKO MUSEOAK

Arte Ederretako Museoa
Fray Francisco pasealekua 8
01007 Gasteiz
Tel. 945-181918

"Fournier" Karta Museoa
Bendaña Jauregia, Cuchillería 54
01001 Gasteiz
Tel. 945-181920

Arkeologi Museoa
Correría 116
01001 Gasteiz
Tel. 945-181922

Arma Museoa
Fray Francisco pasealekua 3
01007 Gasteiz
Tel. 945-181925

Natur Zientzietako Museoa
Jesusen Zerbitzarien kalea 24
01001 Gasteiz
Tel. 945-181924

La Hoyako Museoa
01300 Biasteri
Tel. 945-181918

Arabako Heraldika Museoa
Mendozako Dorrea
01191 Mendoza

Ekintzak
Ikustaldi gidatuak
Ekintza didaktikoak

Arabako Museoen ordutegia
Asteartetik ostiralera: 10etatik 14etara
eta 16etatik 18.30etara
Larunbatetan: 10etatik 14etara
Igande eta jaiegunetan: 11etatik 14etara
Astelehenetan itxita

ERAKUSTEKA ARETOAK

Amarica Aretoa
Amarica Plaza 4
01005 Gasteiz
Tel. 945-181977

Kultura Etxea
La Florida ibilbidea z/g
01005 Gasteiz
Tel. 945-181944

**Arabako Lurralde
Historikoaren Agiritegia**
La ciudad latente
Gert Voor in't Holt-en argazkiak
Miguel Unamuno 1
01006 Gasteiz
Tel. 945-181926

EUSKALDUNTZE ZERBITZUA

Jesusen Zerbitzarien kalea 3
Tel. 945-181881

KULTURA ETXEA

Liburutegia
Kontsulta Aretoa
Bideoteka
Mailegu Saila

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN AGIRITEGIA

Liburutegia
Ikerketa gela

Miguel de Unamuno 1
01006 Gasteiz
Tel. 945-181926

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Cultura y Euskera



Arabako
Foru Aldundia

Kultura eta Euskara Saila